

2017ko abuztuaren 4a, ostirala

# BESTELAKO XEDAPENAK

## ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 3950

*EBAZPENA, 2017ko ekainaren 26koa, Gazteriako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2017. urteko ediziorako onartutako proiektuen zerrenda ezagutzen ematen duena.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko azaroaren 16ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2017. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetan eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei. Agindu hori 2016ko azaroaren 25ean eman zen argitara EHAAn.

Agindu horren eranskinaren 11.1 oinarrian xedaturikoaren arabera, Gazteria eta Kiroletako zuzendariak «Auzolandegiak» programarako proiektuen onarpenari buruzko ebazpena emango du, hautaketa-batzordearen proposamena ikusita. Une horretan, oraindik ez denez onartu Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren araudi organikoa eta sailean ez dagoenez Gazteriaren arloko eskumenik daukan beheragoko mailako kargurik, sailburuak berak ebatzi behar du deialdi hau.

Agindu horren eranskinaren 11.1 oinarrian xedaturikoa betez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak agindua eman du 2017ko urtarrilaren 18an. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2017. urteko ediziorako proiektuak onartu ditu. Ebazpen horretan jaso da onartu ez diren proiektuen zerrenda ere.

Ebazpenaren berri emango zaie banan-banan interesdun guztiei. Horrez gain, aginduaren eranskinaren 11.2 oinarrian xedaturikoari jarraituz, onartu diren eta onartu ez diren proiektuen zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zabalkunde osoa izan dezaten.

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2017. ediziorako onartu diren proiektuen zerrenda (ikusi I. eranskina), zabalkunde osoa izan dezan. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztu dituzte, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2016ko azaroaren 16an emandako Aginduaren babespean (EHAAn, 2016ko azaroaren 25ean).

Bigarren artikulua.– Argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, onartu ez diren proiektuen zerrenda (ikusi II. eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 26a.

Gazteriako zuzendaria,  
ANDER AÑIBARRO MAESTRE.

2017ko abuztuaren 4a, ostirala

## I. ERANSKINA

## Euskar Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2017ko "Auzolandegiak" programarako ONARTU DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin duen entitatea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia non	LH	Lan-mota	Puntuak guztiar	Onartutako txanda kopurua
Aguraingo Udala	Pedroko Hezegunearen eta Aguraingo ingurune berdearen berreskurapena, garbiketa eta errebalorizazioa	Agurain	Araba	Ondare naturalaren kontserbazioa	64	1
Arraia-Maeztuko Udala	Indusketako arkeologiko San Ildefonso edo Gustaldapa asfaltoen fabrikaren	Maeztu	Araba	Arkeologia eta ondare berreskuratzea	67	1
Bilarko Udala (*)	Galtzada berreskuratzea	Elvillar	Araba	Ondare berreskuratzea eta ingurumena	54	1
Aisilan Kultur Elkartea	San Gines bidea egokitzea	Galdames	Bizkaia	Ondare berreskuratzea eta ingurumena	63	1
Lekeitiotako Udala	Hirugarren adinekoentzako animazioa Uribarren Abaroa egoitzan	Lekeitio	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	64	2
Lemoako Udala	Memoria historikoak: Gerra Zibila Lemoatzen	Lemoa	Bizkaia	Arkeología, ondare berreskuratzea eta memoria historikoa	77	2
Urremendi Landa Garapen Elkartea / Asociación de Desarrollo Rural Urremendi	Kulturak eta Naturak ingelesez egiten dute Busturiarldean	Busturiarldea	Bizkaia	Gazteen-dinamizazioa	66	2
Bergarako Udala / Ayuntamiento de Bergara	Belaunaldi arteko trukaketa Mizpirualde Egoitzan / Intercambio entre generaciones en la residencia Mizpirualde	Bergara	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	63	1
Tolosako Udala / Ayuntamiento de Tolosa	Uzturreko bainuak berreskuratzea / Recuperación de los baños de Uzturre	Tolosa	Gipuzkoa	Ondare berreskuratzea eta ingurumena ambiente	58	2

(\*) Bilarko auzolandegia bertan behera utzi dugu behar izandako gutxieneko okupazioa ez delako lortu

2017ko abuztuaren 4a, ostirala

## II. ERANSKINA

## Euskaraldeko Erkidegoko Administrazioaren 2017ko "Auzolandegiak" programarako ONARTU EZ DIREN PROIEKTUAK

Eskera egin duen entitatea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia non	LH	Lan-mota	Zergatik ez den onartu
Añanako Gatz Harana Fundazioa	Añanako Gatz Haranaren berreskurapena eta mantentze-lanak	Gesalta-Añana	Araba	Ondare berreskurateza eta ingurumena	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Kanpezuko Udalak	Indusketa arkeologikoa San Joan baselizan	Kanpezu	Araba	Ondare berreskurateza	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu
Elgoibarko Udalak	Belaunaldien arteko trukkaketa San Lazaro egoitzan	Elgoibar	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu